Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OSAKIDETZA

708

7/2011 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearena, Zorroza-Alonsotegiko Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Bilboko Eskualdeko Zorroza-Alonsotegiko Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren lanpostua betetzeke dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arauan eta Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du zuzendaritza honek. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Bilboko Eskualdeko Zorroza-Alonsotegiko Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren lanpostua –ebazpen honen bidez deitzen dena– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionario, estatutario nahiz lan-kontratuko langile finkoak), A1/B1 Talde Profesionaletakoak, betiere honen ondoren aditzera ematen diren baldintzak betetzen badituzte:

1.– Titulu hauetakoren baten jabe izatea:

a) Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatura, Famili- eta Komunitate-Medikuntzako espezialitatea duela, edo Medikuntza Orokorreko eginkizunez baliatzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplomen jabe direla, Osakidetza ente publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

b) Erizaintzako Unibertsitate Diplomatura.

2.– Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

3.– Esperientzia: 4 urteko esperientzia izan beharko dute, A1 eta B1 taldeetako zereginetan.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

OSAKIDETZA

708

RESOLUCIÓN 7/2011, de 14 de enero, del Director Gerente de la Comarca Bilbao, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión del puesto de trabajo de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Zorroza-Alonsotegi, de la Comarca Bilbao.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Zorroza-Alonsotegi de la Comarca Bilbao, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28, Norma Común Tercera, de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que regulan los Puestos Funcionales en Osakidetza, esta Dirección acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– El puesto de trabajo de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Zorroza-Alonsotegi, de la Comarca Bilbao, que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) con plaza en propiedad en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza correspondiente a los Grupos Profesionales A1/B1, siempre que reúna los siguientes requisitos:

1.– Estar en posesión de una de las siguientes titulaciones:

a) Licenciatura en Medicina y Cirugía, con la especialidad en Medicina Familiar y Comunitaria o alguno de los títulos, certificados o diplomas establecidos para el ejercicio de las funciones de Médico de Medicina General, de conformidad con lo previsto en el anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza, o bien con la especialidad en Pediatría.

b) Diplomatura Universitaria en Enfermería.

2.– Perfil Lingüístico.– Perfil lingüístico 2, sin fecha de preceptividad.

3.– Experiencia.– Disponer de 4 años de experiencia en el desempeño de tareas propias de los Grupos A1/B1.

Bigarrena.– Interesdunek Bilboko Eskualdeko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek curriculum vitae aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. aplikazio informatikoan jasota dutenak salbuetsi egiten dira. Lehen Mailako Atentzioko Unitateko Memoria-Kudeaketa Proiektua jaso beharko du, gehi:

– Titulu akademikoak.

– Orain arte betetako lanpostuak.

– Lanbide-esperientzia eta kudeaketa sanitarioan eskarmentua.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki irizten duen beste edozein merezimendu.

Hautagaiek eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri aurkeztu ahal izango dute.

Laugarrena.– Deialdi hau Gerentzia honetako ebazpenez erabakiko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2011ko urtarrilaren 14a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.

Segunda.– Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la Comarca Bilbao dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae (salvo quienes lo tengan cumplimentado en la aplicación informática), que incluirá una Memoria-Proyecto de Gestión de la Unidad de Atención Primaria, en el que harán constar:

– Títulos académicos.

– Puestos de trabajo desempeñados.

– Experiencia profesional y de gestión sanitaria.

– Estudios, cursos, ponencias, publicaciones conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución de esta Gerencia, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinta.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Bilbao, a 14 de enero de 2011.

El Director Gerente de la Comarca Bilbao,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.